



**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO HORNIKUNTZA-LABORATEGIRAKO MATERIAL SUNTSIKORRA HORNITZEA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3160.**

|                                            |                                                                                                                                                                                            |
|--------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Erregulazio harmonizatuko kontratua</b> | <input type="checkbox"/> BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ                                                                                                                        |
| <b>Espedientea izapidetzea</b>             | <input checked="" type="checkbox"/> Ohikoa, <input type="checkbox"/> Urgentea, <input type="checkbox"/> Larrialdia,<br><input type="checkbox"/> Aurreratua                                 |
| <b>Mota</b>                                | <input checked="" type="checkbox"/> Irekia<br><input type="checkbox"/> Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.)<br><input type="checkbox"/> Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.) |

**A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA**

|                                                                    |                                                                                                                                                                                                      |
|--------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1.- Botere adjudikatzailea:</b>                                 | Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa                                                                                                                                  |
| <b>2.- Kontratazio-organoa:</b>                                    | <input type="checkbox"/> Zuzendaritza Batzordea<br><input checked="" type="checkbox"/> Presidentea<br><input type="checkbox"/> Gerentea                                                              |
| <b>3.- Kontratuaren arduraduna:</b>                                | Estibaliz Alda Tobar                                                                                                                                                                                 |
| <b>4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:</b> | <a href="mailto:contratacion@consorciodeaguas.eus">contratacion@consorciodeaguas.eus</a><br>Kontsulta administratiboak/teknikoak: Tfno.94-4873100                                                    |
| <b>5.- Kontratatzailearen profila:</b>                             | <a href="https://www.consorciodeaguas.eus/eu/">https://www.consorciodeaguas.eus/eu/</a><br><a href="https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/">https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/</a> |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

**1.- Kontratuaren xedea:** BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO HORNIKUNTZA-LABORATEGIRAKO MATERIAL SUNTSIKORRA HORNITZEA

**2.- Zer beharri erantzun behar zaien:** Kondizio-agiriaren xedea hauxe da: hornikuntza-laborategirako material suntsikorraren hornidura kontratatzea, bai eta hornidura horretarako kontratuak bete beharreko kondizio teknikoak ezartzea eta kontratistak hori behar bezala gauzatuko dela bermatzeko dituen konpromisoen irismena zehaztea ere. Kontratu honi esker, hornikuntza-laborategiak behar duen materiala eskuratuko du; urak analizatzeko behar du material hori, hartara uren kalitatea definitzeko, bai ikuspegi sanitariotik (kontsumitzeko), bai kutsadura-mailaren ikuspegitik, uraren arazketaren jarraipenari dagokionez.

**3.- Loteka banatzea:** ☒ Bai ☐ Ez

**Lotearen deskribapena eta zenbatekoa:**

| LOTEA | IZENA                                                        | GEHIENENKO GASTUA<br>(urtebete) |
|-------|--------------------------------------------------------------|---------------------------------|
| 1.    | Beirazko eta plastikozko materiala eta askotariko materialak | 92.000,00 €                     |
| 2     | Erreferentziako materiala                                    | 46.000,00 €                     |
|       | GUZTIRA                                                      | 138.000,00 €                    |

**4.-CPV:** 33696500-0 Laborategiko erreaktiboak



## B.- KONTRATUAREN XEDEA

### 5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI ☒ EZ

### 6.- Izaera juridikoa

☒ Administratibo ☐ Pribatua

## C.- KONTRATUAREN PREZIOA

### 1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)

**EHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI MILA EURO  
(138.000,00 €).**

- 1. lotea: 92.000,00 €
- 2. lotea: 46.000,00 €

### 2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 138.000,00 euro.

Loteak:

☒ BAI ☐ EZ

Loteen balio zenbatetsia:

- 1. lotea: 92.000,00 €.
- 2. lotea: 46.000,00 €.

### 3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak

### 4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:  
16913.22113

1. lotea: 2025. urtea: 30.666,67 euro (BEZa gabe)  
2026. urtea: 61.333,33 euro (BEZa gabe)

2. lotea: 2025. urtea: 15.333,33 euro (BEZa gabe)  
2026. urtea: 30.666,67 euro (BEZa gabe)

### 5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

### 6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI ☒ EZ

**7.- Ordaintzeko modua:** Arrunta, hileko ziurtagiri bidez. Hilabete bakoitzeko azken lanegunean, hilean egindako lanen zerrenda balioetsia eman beharko zaio kontratuaren zuzendariari.

**8.- Konturako ordainketak:** Kontratuaren zuzendariak hilabetetik gorako entrega-epea duten lanen kontu-abonamenduak egin ahal izango ditu.

## D.- KONTRATUAREN EPEA

### 1.- Iraupen osoa: URTEBETE (1).

### 2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

### 3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ



#### **D.- KONTRATUAREN EPEA**

**4.- Bermealdia:** Ez da aplikagarria

**5.- Kontratua exekutatze tokia:** BBUPen instalazioak

**6.- Lanak zatika jaso daitezke** ☐ BAI ☒ EZ.

#### **E.- BERMEAK**

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

#### **F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA**

Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— lote bakoitzaren balio zenbatetsia halako bat izan beharko da gutxienez.

- **1. lotea: 92.000,00 €**
- **2. lotea: 46.000,00 €**

#### **G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA**

- Gehienez ere azken hiru urteetan egindako hornidura nagusien zerrenda, kontratuaren xedea osatzen dutenen izaera bera edo antzekoa dutenena. Zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adieraziko dira, baldin eta egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren % 70ekoa edo handiagoa bada.
- Hornitutako produktuaren hornidura eta kalitatea bermatzeko erabilitako neurriak eta instalazio teknikoak deskribatzea.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

#### **ENPRESA-SAILKAPENA**

**ENPRESA-SAILKAPENA** ☐ Bai ☒ Ez

#### **H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.



### **BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

- Memoria teknikoa, eskaintako hornigaien deskribapenarekin.
- Kontratatik hornigaiak entregatzeko eskaintako bitartekoen erabilgarritasuna deskribatzea.

### **AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

**Proposamen ekonomikoa**, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- Hornitu beharreko produktu guztien prezio unitarioak definitu beharko dituzte kontratistek eskaintza ekonomikoan. Prezio horiek PTPAren I. eranskineko loteen zerrendetan zehazten dira, eta bertan zehazten dira, halaber, zenbatetsitako urteko kontsumoak.
- Produktu jakin baten kontsumo erreala zerrendan adierazitako kontsumo zenbatetsia baino txikiagoa bada ere, ezingo da kontratistak aurkeztutako eskaintzan zehaztutako prezio unitarioa aldatu, beraz, prezio horiek aldaezinak izango dira kontratuaren indarraldian.
- Eskaintako prezio unitarioetan kontzeptu guztiak sartu beharko dira, bai garraioa, bai hornikuntza-laboretegiaren entregatzea (Beteluri), BEZa izan ezik.
- Partzuergoak I. eranskinean zehaztu gabeko produktuen bat eskatzen badu, kontratistak prezio bat proposatuko du eta, Partzuergoak onartu ondoren, aurkeztutako prezio unitarioen zerrendari gehitzeko balioko du.
- Eskaintza ekonomikoak zehazteko, eskaintako material suntsikorraren zenbateko osoa kalkulatu da. Zenbateko hori lortzeko, produktu bakoitzaren aleko prezioa produktu horren urteko kontsumo zenbatetsiarekin biderkatuko da, eta lote bakoitzaren zerrendetan jasotako produktu guztiei dagokien guztizkoa batuko zaio.

### **I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:  
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

### **J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.**

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:  
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:  
Mikel Magunazelaia Pinaga.  
Xabier Orue Moro.  
Itziar Zarate Urrutia.  
Gerardo Latorre Pedret.



**J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.**

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

**1.- Adjudikazio-irizpideak:**

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK 70 PUNTU**

Irizpide honetan 70 puntu emango dira gehienez.

Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik ekonomikoenari, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintza ekonomikorik txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari aplikatu beharreko puntu guztiak egitea.

Hau da:

**(Et / El) x z**

Non:

Et =eskaintza ekonomiko txikiena

El =baloratzen den lizitatzaillearen eskaintza

z = irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntu kopurua.

**BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 30 PUNTU**

a) Memoria teknikoa eta egikaritze-metodologia (20 puntu), honela xehatua:

- I. eranskinaren zerrendetan ageri diren horniduren proposamen teknikoa, bai eta eskainitako marken balorazioa ere, edo, hala badagokio, eskainitako marken baliokidetzak (10 puntu).
- Proposatutako zerbitzuaren egokitasuna. Antolamendua eta erantzuteko denborak. Larrialdietarako prestasuna (10 puntu).

b) Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak (10 puntu), hauek barne:

- Kontratuari esleitutako baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak.
- Lantaldearen antolaketa.

**2.- Berdinketa hausteko irizpideak:**

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakumezko enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

**3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:**



#### **K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztzen badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

#### **4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea: EZ DAGOKIO**

#### **L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK**

PTPAn zehaztutakoak.

#### **M.- ZIGOR ZEHATZAK**

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

- Produktuen eta kontsumo estimatuen zerrenda barne hartzen duen I. eranskineko edozein materialek gehienez zazpi (7) laneguneko epea izan beharko du entregatzeko, eskaera jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Entrega-epe hori ezin bada bete, kontratistak atzerapenaren arrazoiak berri eman beharko dio Partzuergoari, eta epe berria jakinarazi. Behin Partzuergoak onartu ondoren, kontratu-izaera izango du eskaera horrek, eta zigorrak aplikatu ahalko zaizkio adostutako epea ez badu betetzen; hain zuzen ere, % 10eko zigorra ez-betetzea gertatzen den hilaren hileko ziurtagirian.
- Ordainketa-erregimena ez betetzeak, hileko zerrenda baloratuak epe barruan betetzeari dagokienez, % 10eko zigorra ekarriko du ez-betetzea gertatzen den hilaren hileko ziurtagirian, eta 6 hilabete baino gehiagoz behin eta berriz betetzen ez badira, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.
- Akatsak egitea behin eta berriz fakturazio-prozesuan: Eskaintako prezio unitarioen arabera ez diren fakturak, bat ez datozenak eta BEZa biribiltzearekin arazoak dituztenak, besteak beste, hiru hilabetez jarraian jaulkitzen badira, % 5eko zigorra ezarriko da ondorengo ondoko aurreko hiru ziurtagiri akastunen hurrengo ziurtagiriaren ordainketan.
- Salgaiak entregatzen diren unean albaranak aurkeztu ez badira hilean hiru entregetan, % 5eko zigorra ezarriko da gorabehera antzeman den azken hilabeteko hileko ziurtagiriaren ordainketan.
- Materiala entregatzean ikusten bada hark ez dituela eskatutako zehaztapenak betetzen edo



**M.- ZIGOR ZEHAZKAK**

akatsak dituela, eta enpresa adjudikaziodunak zazpi laneguneko epean ez badu akatsa zuzendu zordunketa gehigarririk gabe, % 5eko zigorra ezarriko da material hori entregatu den hileko ziurtagiriaren ordainketan.

**N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA**

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.

**Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA**

Ez da aplikagarria

**O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA**

BAI

**P.- SUBROGAZIOA**

EZ

**Q.- ERREKURTSO BEREZIA**

☒ BAI ☐ EZ

**BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN**

Kontratistak, egin beharreko lanen gauzatzean, hauetan guztietan jasotako betekizunak bete beharko ditu: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arauketa-esparruaren aldaketan (54/2003 Legea), 171/2004 Errege Dekretuan eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan aplikatu daitezkeen arau guztietan jasotakoak.

**KONTRATISTAREN ORDEZKARIA**

Kontratuaren adjudikaziodunak kontratistaren ordezkari bat izendatuko du, eta hura arduratuko da adjudikaziodunaren eta BBUPen arteko elkarriketaz eta bere lantaldea zuzentzeaz. Halaber, lanen garapenean sor daitezkeen zalantzak argitzeko kontsultak egingo ditu.